



PRENTSA OHARRA

ZIGOITIAK BIOMASA-GALDARA BAT INSTALATU DU OSASUN ZENTROAN

- **Zigoitiko Udalak 28.900 euro inbertitu ditu, hauetatik 10.928,72 € Arabako Foru Aldunditik jasotako diru-laguntzari dagozkiolarik eta 3.182,28 €, Energiaren Euskal Erakundetik (EVE) jasotakoari.**

(Ondategi, 2019ko azaroak 19). Jasangarritasun energetikoaren inguruko ekintzak bultzatzen jarraitzeko xedez, Zigoitiko Udalak isurpenak murriztu, kostuak aurreztu eta segurtasun handiagoa eskaintzea ahalbidetuko duen biomasa-galdara bat jarri du Osasun zentroan.

Horretarako Udalak guztira 28.900 euro inbertitu ditu, hauetatik 10.928,72 € Arabako Foru Aldunditik jasotako diru-laguntzari dagozkiolarik, 2019-2020 ekitaldirako jasangarritasun energetikoaren inguruko ekintzak bultzatzeko diru-laguntzen programen barruan eta 3.182,28 €, Energiaren Euskal Erakundetik (EVE) jasotakoari.

"Ekimen honen bitartez, Udaletik eraginkortasun energetikoaren neurriak ezartzeko aldeko pauso berri bat ematen dugu. Neuri hauek Udalak kontsumitzen duen energiaren erabilera arrazoizkoago bat egin ahal izatea, CO2 emisioak murriztea eta faktura energetikoak adierazten duen gastu korrontea txikitzea ahalbidetuko dute" azaldu du Javier Gorbeña Zigoitiko alkateak. "Halaber, jarduketa hau herritarrek bere etxe eta enpresetan honelako ekimenak hasi ditzaten eredu gisa balio izatea espero dugu" gehitu du.

Biomasa-galdarak egurrezko pelletsak bezalako erregai naturalak erabiltzen dituzte energia-iturri gisa, eta horregatik dira merkatuko ekologikoenak. Orobat garbiketa guztiz automatikoa da eta internet bidez telekudeaketa onartzen du. Tokiko baliabideetatik energia sortzean, biomasa-galdarak errentagarritasuna eta %90era iristen diren bero-errendimenduak ematen ditu. Honela, Zigoitiko Udalak beste behin jasangarritasun energetikoa sustatu eta energia moderno, seguru eta errentagarriago baten aldeko apustua egiten du.

Informazio gehiagorako:

Iñigo Aranbarri

688 621 860

aranbarri@sormen.eus

www.zigoitia.eus

945 464 041 - Bengolarra kalea, 1. Ondategi



@ZigoitikoUdala